

SOBHI TAWIL

Zeure bizipen pertsonalak izateaz gain, aditua zaitugu, bestalde, kulturartekotasunean, askotarikotasunean, identitate-eraikuntzan, gizarte-kohesioan eta bestetan. Munduko zenbait herrialdetan askotarikotasunaren eta gizarte-kohesioaren kudeaketa aztertu eta ikertu duzu. Zeintzuk dira elkarrekin bizitzeko arazo nagusiak eta zein da, zuk bizi izan nahiz ezagutzen duzunaren arabera, gatazken jitea edo kausa? Hezkuntza-sistemak nola lagun dezake gatazka horiek konpontzen?

Ez dut uste, funtsean desberdintasuna bera —taldeen arteko kultura- edo gizarte-desberdintasuna— denik indarkeriazko gatazken jatorria.

Gatazka berbaren esanahia oso zabala da eta zenbait elkarreragin mota barne hartzen ditu. Ikuspuntu soziologiko batetik esan dezakegu, gatazka berez datxekiela indarren erlazioa agertzen den gizarte-elkarreragin guztiei. Baina, gainera, indarkeriazko gatazka, gatazka armatu... mota asko dago. Gerra hotzaren ostean, laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, halako pentsamolde-joera bat hedatu zen zeinetan oinarritzko ustea zen, gero eta gehiago ari zirela gertatzen identitate-gatazkak, herrialde zein estatu barrukoak, gatazka etnikoak, etab. Egia da, beharbada indarkeriazko gatazka batzuen areagotzea gertatu dela; gatazka horiek gehien bat barrukoak, ez hain ohiko edo konbentzionalak, izan dira, gero eta gehiago hiri-eremuetan garatzen joan direnak, berorietan gero eta lausoago zegoela gudularien eta zibilen arteko muga. Ustekizuna zen, indarkeriazko gatazken jatorrian gero eta hein handiagoan identitate kontuak zeudela, baina ni neu ez nago ziur analisi hori zehatza den. Nik gatazkei buruz dudak ikuskera, bestalde, konbentzionalagoa da agian, eta pixka bat marxista ere bai agian, noiz eta

esaten dudanean, gatazken jatorrian, baliabideak, baliabide materialak eta halaber immaterialak eta sinbolikoak, kontrolatzearen gizarte-taldeen artean darabilten lehiaren kontua dagoela. Ikuskera horretan, izan daiteke identitate-politiken gaia mobilizazio politikorako iturri ideologiko bat izatea, baina taldeen arteko gatazken kausen azpian datzan funtsezko faktorea, lehen bezala orain ere bai, alde batetik aberastasunen kontrol eta banaketa kontu bat da, baina baita kultura ofiziala, gizartearen osagai sinbolikoa, herritarren nazio-identitatearen izaera definitzeko aukera, eta abar kontrolatzearen kontua ere.

Beraz, nahiz eta UNESCOren sorrera-aktako atarikoan gerra gizon eta emakumeen espirituan sortzen dela esaten den, eta, ondorioz, bakearen defentsak, hain zuzen ere, gizon eta emakumeen espirituan bertan eraiki behar ditugula, baita pentsatu dezakegu ere, taldeen arteko gatazken sorburua ez dagoela taldeen arteko ordezkartza dibergente eta bateraezinen arazo

bati bakarrik lotuta, ezpada ze baita talde batzuek baliabide ekonomikoen, natura-baliabideen, politikoen eta sinbolikoen kontrola, edo are haien gaineko monopolioa, nahi izateari ere. Hain zuzen ere, baliabideen kontrolari lotutako gatazka horiek oinarri gauzatzen dira identitate-ordezkaritzak. Gatazken interpretazio kultural horrek ahalbidetzen du, identitatezko ideologia politikoetan oinarrituz, taldeak elkarren aurka mobilizatzea. Ez dut uste, funtsean desberdintasuna bera —taldeen arteko kultura- nahiz gizarte-desberdintasuna— denik indarkeriazko gatazken jatorria.

Ikuspuntu horretatik, gatazkek prebenitza edo konpontzea helburu, hezkuntzak edo ikuspegi pedagogikoen egin dezaketen ekarpenaren gaiak beste izari bat hartzen du. Hezkuntzari eta garapenari buruzko diskurtsoan sarritan oso optika instrumental eta teknizista bat erabiltzen dugu, hezkuntza prozesu apolitikoa balitz lez. Ikuspegi tekniko eta instrumental horretan, xedea hezkuntza formalerako sarbidea eta haren kalitatea hobetzea da, eskuratutako gaitasunek ongiza-

tea hobe dezaten eta garapen sozio-ekonomikoan, pertsonak emantzipatzen, haien ekoizkortasuna etab. areagotzen lagun dezaten. Hala eta guztiz ere, izatez, hezkuntza-politikak eta beroriek definitzeko prozesua, funtsean eta batez ere, gai politiko bat dira. Hezkuntza-politiken formulazioak, hasteko eta behin, gizarte-ikuspegi bat definitzea dakar, zer garen, nondik gatozen eta zer izan nahi dugun, etorkizunean nola proiektatzen garen... definitzea. Hortaz, hor bada botere kontu bat, baldintzatzen duena, bestalde, gizarte jakin bat osatzen duten gizarte- eta kultura-talde ugarien artean, prozesu hartan zeinek parte hartuko duen, zein kontsultatuko den, zeintzuk ahots entzungo diren eta zeintzuk ahots entzungo ez diren. Aipatu prozesuan gizartearen osakide garrantzitsurik baztertzeko bada, arras ahuldurik geratzen da edozein hezkuntza-politikak esan nahi duen gizarte-kontratuaren zilegitasuna. Ildo horretan, ikuskera pedagogiko baten potentzialak, hura edozein dela ere, muga zehatz batzuk ditu, hezkuntza-politikaren zilegitasunak edo zilegitasunik ezak diktatutako mugak, alegia. Zeinahi ere den ikuskera pedagogikoa, elkarrekin bizitzen ikasterakoan izan dezakeen eragina —den etorkizun handikoa izanda ere— aldezturik dago, hots: bateko, hezkuntza-politikaren zilegitasunaren norainokoak eta, besteko, haren formulazioan talde desberdinak eta kultura- nahiz hizkuntza-gutxiengoak sartzeak edo kanpo uzteak.

Horrexetan oinarrituta uste dut nik, bada posible elkarrekin bizitzen ikastera zuzendutako hezkuntza-ikuskerak bat. Adibidetzat 2004ko ikerketa-lan baten emaitzak aipa ditzaket. Zenbait herrialdetan hezkuntzari, gatazkari eta gizarte-kohesioari buruz egin genuen ikerlan horretan planteamendua barruko gatazka-egoeren eta hezkuntza-politiken artean zegoen lotura antzematzea izan zen. Zazpi kasu erreal aztertu genituen; zehazki, Bosnia Herzegovina, Guatemala, Libano, Mozambike, Ipar Irlanda, Ruanda eta Sri Lankan.

Je ne pense pas que la différence en soi – la différence culturelle ou sociale entre les groupes – soit la source essentielle des conflits violents.

No creo que sea la diferencia en sí misma –la diferencia cultural o social entre los grupos– la que constituya esencialmente el origen de los conflictos violentos.

Gatazka-egoerak desberdinak ziren, baina, argigarri gisa, Ipar Irlandaren adibide nabarmena hartuko dugu. Gizarte zatitu horretan % 95 inguru ikasle eskola bananduetan zegoen eskolatuta, erlijio-komunitate batekoa edo bestekoa izatearen arabera, eta ostera, guztizkoaren % 5 baino ez zegoen eskola “integratu”-etan eskolatuta, hau da, protestanteak eta katolikoak elkarrekin ikasten ari zirenetan. Hura bezalako bereizketazko hezkuntza-sistema batean, “elkarrekin bizitzea” erraztea xede, eskola-programen ikuskeren eta irakasleen prestakuntzaren bitartez egiten saiatu ahal den guztiak muga batzuk ditu. Hain zuzen ere, eskolan badago eguneroko sozializazio-errealitate banandu bat, familia barruan eta nabarmenki bereizitako auzoetan sozializazio bat islatu eta indartu besterik egiten ez duena. Bereizketazko sozializazio horrek, hezkuntza-sisteman ere islatuta dagoenez, elkarrekin bizitzearen eta askotarikotasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetuaren gaiaz denaz bezainbatean, mugak ipintzen dizkio edozein ikuskera pedagogikori.

Laburki esateko, hala nahi izatera, are kontua gai pedagogiko bilakatu baino lehen, ahalegin pedagogikoak baldintzatzen duena eta berorren eraginkortasuna edo mugak xedatzen dituen aztertu behar dira. Beraz, baita aztertu behar dira ere, hezkuntza-politiken formulazioa eta helburu nagusien formulazioa, hezkuntzaren ikuskeraren gaineko kontsulta- eta elkarriketa-prozesua, nork parte hartzen duen eta nork parte hartzen ez duen, nor dagoen kontsultan sartuta eta nor dagoen kanpo, hezkuntza-sistemaren egitura, sistema kudeatzeko egiturak..., zeren ekintza pedagogikoek arlo horretan egin ditzaketen ekarpenak baldintzatzen baitituzte. Berritua bada, botere kontua da, alegia: gizarte jakin bat osatzen duten taldeen artean, euren interes desberdinak eta batzuetan elkarren aurkakoak eta guzti, nork lortzen duen bere ahotsa eta ikuskera gailentzea eta hezkuntza-politika publikoak eratzea. ■